ALBERDANIA

www.alberdania.net | http://alberdania@alberdania.net Istillaga plaza 2, behea C, 20304 Irun **Tel**: + 34 943 63 28 14

Pitzatuta gaude denok!

Amaia Telleria

Bilduma: Erria txikota!
Generoa: eleberria
Formatua: 13,50 x 21,50 cm.
Orrialdeak: 132
Koadernaketa: paperezko azala


Edizioa: 2021/11/22

ISBN: 978-84-9868-707-1

SALNEURRIA(BEZ gabe): 11,06 €

SALNEURRIA (BEZarekin): 11,50 €

BAZTERKETA, ADISKIDETASUNA, MAITASUNA ETA SEXUA NERABEZAROAN



Sinopsia

Joneren ama oso kezkatuta dago ikasturte amaieran alabak mugikorrean jaso dituen mezu eta bazterketagatik. Hurrengo urteari begira zer egin pentsatzen duen bitartean, Mundakan bizi den ahizpari eskatuko dio alaba nerabea etxean har dezan, surf-udalekuetara joateko aitzakian. Bere lehengusina Eurirekin igaroko du Jonek, hortaz, uztaila.

Euri Jonek izan nahi lukeen guztia da: polita, jatorra, alaia, nortasun handikoa... Egunak aurrera doazen heinean, ordea, Jone konturatuko da gauzak ez dabiltzala espero bezala, Euri ez dela uste duen bezain indartsua eta ez duela beti defendatuko lehengusina izate hutsagatik...

«Uztail osoa kostaldeko herritxo batean, surf udalekuaren aitzakian. Aspaldiko udarik dibertigarriena izango zen, ziur. Etengabe errepikatu zidan amak aurreko egunetan. Aitortu behar dut nik neure zalantzak banituela orduan... Inoiz ez zaizkit aldaketak eta sorpresak gustatu.

»Eskuak poltsikoetan sartuta igaro nituen arrantzale-tabernen ilara osoa, herritarren jakin-minezko begiradei ihes egin nahian. Izebak agur egiten zien agure guztiei eskua jasota, ezagunak izango zituen eta. Euri isilik zihoan neure ondoan, bere adats horixka alde batera eta bestera astinduz. Azkenean, taberna hipster samar bateko ateari bultza egin eta barrura sartzeko keinua egin zigun izebak. »

Egileaz



AMAIA TELLERIA MUJIKA (Idiazabal, 1993). Lehen hezkuntzako irakaslea da, eta Bergarako Idazle Eskolan gradu-ondokoa egin zuen. Ipuinak argitaratu ditu zenbait aldizkaritan, eta narrazio laburrak saritu dizkiote Koldo Eleizalde, Gordexola Harana eta Errenteria Hiria lehiaketetan, besteak beste. Haize-lekuak eleberria argitaratu zuen 2020an, eta Zuhara. Itsasoaren deia gazteei zuzendutako eleberria 2021ean, biak alberdanian.